

## ZURI NAGO JAUNA!

Egurats-leku sotil, ibai-ertz biguna;  
Zuri bai ixil Orri nagokizu, Jauna!  
Ernai nator goizero, biotz ikarati.  
Atsegin jat onako bide gaiñ urdiña,  
ibaiaren arnasaz bizidun egiña,  
Zuri dei maitekorra egin naiez beti.

Zuri kantari doa ibai ez aundia,  
oiu gozoz daukola gau t'egun aldia;  
goiz argia dizdikor dala goian eten?  
Ura bizkortuz erro ta ostoak dardar,  
zugatz-gaiñak apurka ixuriz ur-zidar.  
Zuk dituzu milla abots eresian jarten.

Ez zakustaz zu bertan, baiña bertan zaitut,  
egonaren arnasa barne-oiu dantzut.  
Begiak ez artzen, ez belarriak oar;  
Zu baiña ortxe zagoz, dana indar-azoaz.  
Nik bizi dei dagizut barru indar beroaz  
eta Zuk erantzuna ez al dot nik indar?

Bolbol ta bolbol beti, uraren pareko,  
Zuri nagokizu bai, ez nik zu lagako.  
Zeru-estalkia iñoiz goibelik ba lego,  
siñist daidan sendoro, zure begi ixilla  
auzo-auzo neukake zaintzaille bipilla:  
kanta zuk, txori aske; kanta zuk be, ego!

Ibai-egal naukazu zut, Zuri begira,  
adi izadiaren ots ta soiñu zolira.  
Biotza zauriturik nator ona sarri  
eta Zuk damostazu, Aita amultsu orrek,  
nire arima zauriz nekazari onek  
bear dauan osagai ta min aztugarri.

*Igotz*